



# Berdintasunean

# Hezten



Irakasleentzako  
gida

**Berdintasunean Hezten. Irakasleentzako gida**

**Emakumearen Institutua eta Berdintasun Ministerioaren Laguntzaz FETE-UGTk egindako programa**

**Egileak:**

FETE-UGT

Emakumearen Institutuaren lankidetzarekin

**Argitalpen hauetako testuetan oinarrituta:**

Coeducación: dos sexos en un solo mundo

Graciela Hernández Morales

M<sup>a</sup> Jesús Cerviño Saavedra

ITE (Berdintasun Ministerioa)

Emakumearen Institutua (Berdintasun Ministerioa)

Madril, 2009

Formación del profesorado. Igualdad de oportunidades entre chicas y chicos

Concepción Jaramillo Guijarro

a (Berdintasun Ministerioa)

Madril, 2. berrinprimatzea 2007

**Irudiak:** Mónica Carretero

**Itzulpena:** Roberto Casas Andrés

**Edizioaren Koordinatzailea:** Sendra Ros Escanez

## *Aurkibidea*

Hogeita hamar urtez berdintasunerantz bidaiatzen .....	5
Hezkuntzaren muinean kokatzen gara .....	7
Berdintasunean heztearen esanahia ulertzen dugu .....	9
Heziketa mistotik hezkidetzara aurrera egiten dugu .....	12
1. Ezkutuko curriculuma azaleratzea .....	14
2. Ikastetxearen antolaketa eta parte-hartzea .....	17
3. Emakumeak nahiz gizonak adierazten dituen mintzaira ez sexista erabiltzea .....	20
4. Eduki kurrikularrak eta baliabide didaktikoak berrikusi eta aldatzea .....	23
5. Harremanean heztea .....	26
6. Eskola-, bizi- eta lanbide- orientabidea .....	29
7. Ikastetxea bake gune eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko gunearen moduan esperimintatzea .....	32



## *Hogeita hamar urtez berdintasunerantz bidaiatzen*

**D**uela hogeita hamar urte neska-mutilek eskola berezietan gizartearen arabera sexu bakoitzari zegokiona ikasten zuten. Neskak, esparru pribatuan geraturik, zaintzaz eta arretaz arduratzeko eta etxe-koandrea izateko prestatzen ziren. Mutilen prestakuntza, aldiz, etxe-ko burua izatera, lan bat egitera eta arlo publikoan leku bat betetzera zuzenduta zegoen.

Neskak eta mutilak bi espaziotan zatitzen zituen horma emakumeen mugimenduari esker eraitsi zen, demokrazia heldu eta gizon eta emakumeen arteko berdintasun-printzipoa onartzen duen Konstituzioa onartu zenean.

Hasiera batean pentsatzen genuen neska-mutilak ikasgela berberetan egotearekin aski izango zela erlazioak era naturalean finkatzeko, bizi-tza berdintasunean konpartitzeko modu berria sortuz.

Hala ere, bidaiaren hasieran baino ez geundela konturatu ginen asko luzatu gabe. Biztanleen ezagupenek eta beharrek eragindako hezkuntzaren bazter guztietan utzia zuen denborak bere azterna ezabaezina. Curriculumak, ikastetxeen antolaketa, mintzaira, aukera profesionalak...



gizonezkoentzat diseinatu eta pentsatuta zeuden. Azken finean, gizonek esparru publikoan, ordaindutako lanean, politikan, kulturean... zeregina nabarmena zeukaten.

Egoera horren aurrean bi soluzio besterik ez dago: sexuen arteko desberdintasunak ukatzea, edo gizon-emakumeen beharrak, ekarpenak eta esperientziak kontuan hartzen dituen hezkuntza sistema sustatzen duen benetako elkarketa faboratzen saiatzea.

Hezkuntza ezin da portuan hondartuta geratu, lehen bezala, eta hezkidetzaren premisen ikuspuntutik ikastetxeen bizitza eraldatzen duen norabide berria zehaztu behar da, hezkuntza arloan era ikusezinean existitzen diren diskriminazioaren egoerak aurkituz eta argiaraziz; emakumeen jakintza eta ezagutza eskola-curriculumera sartuz; hezkuntza-elkartean parte hartzen duten gizon-emakumeen beharrak kontuan hartuz; eta eskubide berberetan, elkar onarpenean, errespetuan, askatasunean eta erantzukidetasunean oinarritutako sexuen arteko harremanak sortzeko hezkuntza estrategiak proposatuz.

Hezkidetzaren eredia definitzen duten proposamenak, berdintasunean heztearen garrantziaren arrazoiak eta urte hauetan batu dugun esperientziaren emaitza diren proposamen praktikoak, aurkituko dituzue orrialde hauetan.

Egoera horren aurrean bi soluzio besterik ez dago: sexuen arteko desberdintasunak ukatzea, edo gizon-emakumeen beharrak, ekarpenak eta esperientziak kontuan hartzen dituen hezkuntza sistema sustatzen duen benetako elkarketa faboratzen saiatzea”

## Hezkuntzaren muinean kokatzen gara

**G**ure bidaiá hezkuntzaren bihotz berean hasten dá, ikastetxean alegia. Hor esperientzia, itxaropen eta behar desberdinak dituzten ikasleek euren bizitzen funtsezko zati bat konpartituko dute.

Ikasleen prestakuntzan parte hartzen duten pertsonok ugari gara. Zuzendaritzakoek, familiek, irakasleek, orientazio-taldeek, administrazioako langileek, jantokiko zaindareek, mantentze langileek... denok dakigu hurrengo urteak erabakigarriak izango direla eta, horregatik, gure esku dagoen guztia ematen dugu ikasleek gaitasun intelektual, fisiko, emozional eta sozialak garatzeko. Errespetuz





eta elkarrenganako onarpenez erlazionatzen ikas dezatela nahi dugu; euren bizitzak eta bizikideenak zaintzarekin konpromisoa har dezatela ere bai; baita ere, estereotipo sexistarik gabe eta euren ahalmen eta gaitasunen arabera etorkizun profesionalari aurre egiteko prest egon daitezela; modu berean, era erantzugarri eta aktiboan, hiritar gisa, tokatu zaizkien gizarte eta garian parte har dezatela nahi dugu.

Badakigu leku honetan gure ikasleentzat esanahi berezi-berezia duten ehundaka gertaera igarotzen direla. Ikasegun guztietan, ordu batzuez, ikasgeletan, pasabideetan, patioan, gimnasioan... erlazionatzen dira, ikasmahiak konpartitzen dituzte, taldeka lan egiten dute, euren berdinekin identifikatzen dira, sentimenduak miatzen dituzte, bakardadean edo lagunduta ikasten dute eta, ahopean eta konplizitatez eta adiskidetasunez, kezkatu edo interesatzen zaiena komentatzen dute. Berdintasunean erlazionatzen ikasteko denbora da.




Era erantzugarri eta aktiboan, hiritar gisa, tokatu zaizkien gizarte eta garian parte har dezatela nahi dugu ”

## *Berdintasunean heztearen esanahia ulertzen dugu*

**B**atzuetan berdintasun hitza era desegokian ulertzen da, neska eta mutilen arteko desberdintasunak ezabatzea bailitzan, berdin-berdinak eginez, edo neskak mutikoen antzeko bihurtzen saiatzea balitz bezala. Inola ere ez. Izan ere, benetako berdintasunak desberdintasuna baloratzen du, berez naturala delako. Baloratzen ez duena desoreka da, injustizia, indarkeria eta sexu batek bestea menperatzea esan nahi duelako.

Gogora dezagun mende askotan zehar, eta oraindik gaur egun, munduko leku batzuetan emakumeen zoria jaiotzetik finkatuta zegoela, bere existentzia, autonomia eta askatasuna mugatuz. Berdintasun heziketak, alderantziz, aukera, eskubide eta esperientzia positiboen mundu bat irekitzen du, eta elementu horietako batzuk sexu bati edo beste bati zegozkien eksklusiboki. Halaber, sexu zehatz bati lotuta zeuden ohitura eta kodeetatik gaur egun bietako batentzat ere desiragarri edota onuragarriak ez direnak berraztertuko ditugu.

### **Berdintasun heziketak...**

-  Ikasleek emakumea edo gizona izateko era berezi, orijinal, anitz eta baketsuak adieraztea sustatzen du.



**Benetako berdintasunak desberdintasuna baloratzen du, berez naturala delako. Baloratzen ez duena desoreka da, injustizia, indarkeria eta sexu batek bestea menperatzea esan nahi duelako ”**

- ✎ Elkar aitortzez, errespetuz eta erantzukizunez erlazionatzen irakasten du.
- ✎ Ikasleen garapen intelektual, emozional, fisiko eta sozial osoa eragotzen duten sexu-estereotipoak erazten ditu.
- ✎ Etorkizun pertsonal eta profesionalari buruzko erabakiak hartzen laguntzen du, gaitasun eta itxaropenen arabera, eskubideei dagokieenez segurtasunarekin eta sexu-estereotipoek baldintzatu gabe.
- ✎ Feminismoaren historia irakasten die ikasleei, iraganeko eta gaur eguneko diskriminazioaren esanahiaz eta gizateriaren garapen eta ezagutzarako emakumeen ekarpenez jabetzeko.
- ✎ Etxeko esparruan erantzukidetasuna, zaintzak, besteeikiko arreta eta gizartean parte-hartzea sustatzen dituzten heziketa-proposamenak garatzen ditu.
- ✎ Eskubide eta aukera berberak bermatzen ditu ikasten duten neska eta mutil guztientzat, euren egoera eta behar espezifikoak erantzunez.
- ✎ Emakumeen jakintza, ezagupenak, interesak eta esperientziak sartzten ditu curriculumean eta heziketa praktikan.
- ✎ Emakumeen ezagupenak eta ekarpenak ezagutzaren arlo guztietan (artean, historian eta bizitza orokorrean...) hartzen dituen curriculumak garatzen du.
- ✎ Edozein komunikabide, teknologia berri edo giza arlotan emakumeak baztertzen dituzten mezu edo egoeren aurrean jarrera kritikoa edukitzeko eta horien kontra egiteko prestatzen ditu ikasleak.
- ✎ Ikastetxearen bizitzaren kudeaketa eta antolategan gizon-emakumeek esku hartzeko estrategiak garatzen ditu.



- ✎ Ikastetxea indarkeriari edota sexu- arraza- edo homofobia- diskriminazioari beldur izan gabe ikasleek parte hartzen duten ongizateko leku atsegin eta baketsua izatea bermatzen du.

*Hezkidetza eskolak sortzen duen elkarbizitza-giroan gizonak nahiz emakumeek desberdintasun sexualak askatasunez interpretatzeko eta hiritartasun arduratsu eta demokratikorantz hazteko aukera dute. Era horretan, hiritarrak elkarbizitza baketsuan erlazionatzen dira eta edozein diskriminazio motaren aurkako konpromisoa hartzen dute...*



## Heziketa mistotik hezkidetzara aurrera egiten dugu

**N**eska-mutiek ikasgela konpartitu behar dute elkar ezagutzen, elkar errespetatzen, elkarrekin esperientziak aurkitzen, taldean lan egiten eta kooperatzen ikasteko. Labur esanda, errespetuz eta era bakeitsu eta arduratsuan erlazionatzea. Espazio partekatu honetan hasita **hezkidetz**a eredu bat garatzea dugu helburu. Eredu horrek ikastheen esperientzia aberastu behar du era askotan: ezkutuko curriculumean eragiten duten emakumeen kontrako oztopo edo diskriminaziozko egoerak eliminatuz; sexu ezberdinetako pertsona guztiek onartuta daudela sentitu eta era arduratsu eta osoan, sexu estereotipoetatik aske, heziketa prozesuan parte hartzen duteneko gune maitagarri eta demokratiko bilakatuz ikastetxea.

Hezkidetzaren ereduak garatzeko hezkuntza elkartean parte hartzen duten pertsona guztiek egindako **berdintasun plana** egin behar da. Hona hemen plan horretako atal batzuk:

Sexu ezberdinetako pertsona guztiek onartuta daudela sentitu eta era arduratsu eta osoan, sexu estereotipoetatik aske, heziketa prozesuan parte hartzen duteneko gune maitagarri eta demokratiko bilakatzea ikastetxea”



1. Eskutuko curriculumaz azalera.
2. Ikastetxearen antolaketa eta parte-hartzea.
3. Emakumeak nahiz gizonak adierazten dituen mintzaira ez sexista erabiltzea.
4. Eduki kurrikularrak eta baliabide didaktikoak berrikusi eta aldatzea.
5. Harremanean hezteko.
6. Eskola-, bizi- eta lanbide- orientabidea.
7. Ikastetxea bake gunearen moduan esperimendatzea.

*Hezkidetzak gizarte osoarentzako erronka da. Hezkidetzak, balore berrietan heziketaren bitartez, diskriminazio egoerak ezeztatzen ditu, eskubide eta aukera definituen berdinketarako abiatuz, sexu biak kontuan hartuz eta emakumeek sortu eta mantentzen dutenetik ikasiz. Emakumeen ekarpen hori gizakien bizitza eta bizikidetasunerako funtsezkoa da, bereziki maitasuna. Halaber, ikasleek, neskek nahiz mutilak, elkar onarpenetik harremanetan sartzen ikasi behar dute, horrela emakumea edo gizona izateko modu paregabe, orijinal, anitz, baketsu eta libreki adierazi ahal izango dituzte.*

## 1. Ezkutuko curriculumua azaleratzea

Ikastetxeetara joaten diren ikasleen itxaropen, behar eta esperientziak bakoitzaren sexuaren arabera izaten dira. Ikasle neutro eta unibertsala ez da existitzen. Hala ere, gaur egun ezagutzen dugun hezkuntza sistema, hasiera batean, mende askotan funtzionatzen egon zen sozializazio esparru patriarkalean ikasleak prestatzeko eratuta zegoen. Esparru horrek gizonen zeregina arlo publikoan eta emakumeen eginbeharrak etxeko espazioan definitzen zituen.

Testuinguru hau ez zen aldatu heziketa mistoa onartu zenean eta, oraindik gaur, ez du eraldatu nahi. Hori dela eta neskak beraiena ez den espazio batera sartzen dira, neurri handi batean ez dakizkitelako emakumeen errealitate historiko eta soziala, euren beharrak, munduak ematen dien berdintasuna legezkoa baino ez dela, benetakoa izateko eragozpen ugari existitzen jarraitzen dutela, eta egoera honetan emakumeek mugitzeko oztopo asko dituztela. Espazio honek ez ditu transmititzen sorkuntzatik amek alabei transmitituz joan diren jakintza eta ezagupenak, ezta bizitza eta harremanen zaintza eta mantenua ere, funtsezkotzat hartzen ez dituelako. Era berean, ez ditu kontatzen





emakumeen historia eta euren eskubideak konkistatzeko borrokaren etapak. Eta, gainera, gizateriaren garapenerako eta jakintzaren eremuetan emakumeen ekarpenak eta izenak ezkututzen ditu.

Nesken eta mutilen beharrak kontuan hartzen ez dituen eredu honen jadanekotasunak, era desegokian neutroa deitutakoa, ikasleen garapen pertsonala eragozten du. Neskek estutasun handiak dituzte identifikatzeko erreferenteak aurkitzeko, autonomiaz eta askatasunez eskolan bizitzeko baloratuta eta baimenduta sentitzeko, edota organo erabakitzaileetan edo hezkuntza eta bizi proiektuetan berdintasunean esku hartzeko. Mutilentzat zaila da bideak aurkitzea emozio, zaintza, erlazio eta afektuekin erlacionatutako aspektuetan garapen osoa aurkitzeko, dimentsio horiek bizitza oso eta arduratsua proiektatzeko ezinbestekoak badira ere.

Neutro eta unibertsaltzat hartuta izan zen eskola eredu honek nesken eta mutilen presentzia eta behar propioak kontuan hartzea nahi badugu, bere ekarpenez hezkuntza elkarte osoak etekina lortuz, neutraltasun faltsu hori agerian jarri eta emakumeak eta neskak ikastetxeen bizitzako osagai guztietan eta bazterten dituzten egoeretan zein neurritan dauden presente azaleratu behar da.

Jarrian seinalatzen dira berdintasun heziketa trabatzen dituzten zenbait aldagai: emakumeen eta historian, zientzian, artean, politikan,



matematikan, eta abarretan egin dituzten ekintzen ikusezintasuna bezalako egoerak; testu liburuen eta ikasgeletako baliabideen mintzaira opakua, itxuraz generikoa izan arren, gizateriaren erdia estaltzen duela; irakasleek neskei ematen dien bigarren mailako trataera; irakasleek neskak neurri txikiagoan aintzat hartu eta sendotzen dituztela; eskolako espazioen arauak eta erabilera; afektibitate- eta sexu-heziketa ez sartzea; eskolako indarkeria prebenitzeko tratamendua genero perspektiba kontuan hartu gabe planteatzea; eta tradizionalki etxeko arloari zegozkion lanak eskola curriculumetatik kanpo uztea.

*Ezkutuko curriculumak erakustea diskriminazioaren trikimailuak azalartzea eta emakume eta gizonen presentziaz eta parte-hartze osoz aberasten den hezkuntzari bidea ematea da.*



## 2. Ikastetxearen antolaketa eta parte-hartzea

Eskolako testuinguruan ikasgaietan arreakusitako edukiak ikasteaz gain, elkarbizitzako guneetan ere sexuen arteko berdintasunarekin erlazionatutako balore, jarrera eta konportamenduak ezarri eta transmititzen dira. Denak hezten du. Keinu bakoitzak, erabaki bakoitzak, ikasleei mintzatzeko erak, jardueren plangintzak, espazioen erabilerak, ikastetxeen organigraman emakumeek betetzen duten lekuak, gutun eta abisuen bidez informatzeko erak ere bai. Labur esanda, gizon eta emakumeei esleitzen diegun balore eta kontzeptua transmititzen dituzten elementu eta aldagai guztiek, ikastetxean egunero elkarrekin bizi diren pertsonen arteko loturak zehazten dituztenek, hezten gaituzte.

Horregatik hezkuntza elkarteko kideak garenok askotan estereotipo eta aurreiritzietan oinarritutako usadioei dagozkien desberdintasunezko egoerez jabetu behar dugu eta, halaber, guztiontzat onuragarria izango den aldaketa prozesuaren buruan jarri behar dugu, harreman demokratikoa go, zuzenago eta solidarioagoak sortuz.

Denak hezten du. Keinu bakoitzak, erabaki bakoitzak, ikasleei mintzatzeko erak, jardueren plangintzak, espazioen erabilerak, ikastetxeen organigraman emakumeek betetzen duten lekuak, gutun eta abisuen bidez informatzeko erak ere bai ”



Azpimarratu beharreko norabide batzuk hauexek izan daitezke:

- ✎ Ikastetxearen heziketa-, curriculum- eta elkarbizitza- proiektuetan berdintasun printzipioa sartzea.
- ✎ Berdintasun printzipioa sartzea ikastetxearen barne-araudian.
- ✎ Parte-hartze espazio eta gune erabakitzaile guztietan gizon eta emakumeen presentzia orekatua.
- ✎ Ikasleek askatasun eta segurtasunez ikastetxeko espazioak erabil ditzatela bultzatzea.
- ✎ Ikastetxearen komunikazioaren aspektu guztietan emakumeak azaleratzea. Adibidez, ikasgeletako izenetan, liburutegian, jardueretan, eskolako web orrian, ikastetxearen egunkarian...

- ✎ Hartu-eman, informazio eta amankomuneko laneko erlazioak berdintasunezko elkarte eta bestelako organismoekin ezartzea.
- ✎ Sexista ez den mintzaira inklusiboa ezartzea idatzizko eta ahozko komunikazioetan.
- ✎ Ikastetxean lan egiten duten pertsonen eta familien bizitza pertsonal, familiar eta labolarala adosteko beharretara moldatzea eskola-ordutegi eta jarduerak.
- ✎ Curriculum eta baliabideak berrikustea ikasgeletan, liburutegian eta eskolaz kanpoko jardueretan emakumeen errealitatea barne hartzeko eta estereotipo sexistarik ez edukitzeko.
- ✎ Bai hezkuntzako langileei bai familiei eta ikasleei zuzendutako berdintasun heziketaren jarduerak programatzea.
- ✎ Emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioa, etxeko esparru, zaintza, emakumeen historia eta afektibitate- eta sexu-harremanekin erlazioatutako jakintzak bezalako edukiak eskola-curriculumean sartzea.
- ✎ Metodologia pedagogikoa berrikustea, neska eta mutilen artean elkar ezagutzea eta errespetuzko erlazioak sustatzen dituzten elementu positiboak (parte-hartzea, elkarlana eta ikerketarekin erlazioatuak) sartuz.



### *3. Emakumeak nahiz gizonak adierazten dituen mintzaira ez sexista erabiltzea*

Hezkuntza arloan lan egiten dugun guztiok ondo dakigu mintzaira hezkuntza praktikarako funtsezko elementua dela, hitzen bitartez erlazionatzen garelako ez ezik, jakinduria eraiki eta transmititzen duen baliabide hori errealitatea sinbolikoki irudikatzeko tresna delako ere bai. Lengoia giza harreman guztien funtsa da eta, horrenbestez, baita heziketa erlazioena ere. Hain inportante da ezen ikasleek soilik bereganatzen baitute ezagutza izendatzen duten hitzak ezagutzen dituztenean, errealitate berriak interpretatu, komunikatu, adierazi eta sortzeko erabiliz. Beste era batera esanda, hitz berri bat oparitu edo asmatzen edota errealitatea euren hitz propioez izendatzen laguntzen diegunean, euren ezagueran aurrera egin eta euren existentzia aberasten dute.

Hizkuntzak, adierazi beharrean, itxuraz neutrala den maskulinoan ezkutatzen denean emakume eta neskei existentzia eta errealitatea lapurtzen zaizkie, mundua bakarra izan arren munduko biztanleak bi sexu ezberdinetakoak direla estaliz. Maskulino dena unibertsal denarekin identifikatzea emakumeak ikusezinean uztea da.





Hezkuntza arloan mintzaira ez sexista erabiltzea oinarritzkoa da arrazoi hauengatik:

- ✎ Emakumeek eta neskek errealitatea adierazten dituzten hitzetan euren burua aurkitu eta besteek onartzea behar dute. Arauen araberakoa ez den behar existentziala da.
- ✎ Ikasleek lengoaiaren bereganatu behar dute beraien burua lehenengo pertsonan adierazi ahal izateko, sakonean diren bezala azalertzeko, eta sexu biak behar, nahi eta galdera propioekin onartzeko, ingurugiroarekin erlazionatuz eta, era horretan, ikasiz.

- ✎ Emakume eta nesken errealitatea ezin da ikusgai bihurtu testu liburu eta eskola-edukietan femeninoa eta maskulinoa erabiltzen ez baditugu.
- ✎ Gizonezkoak ez ezik, emakumezkoak ere eskola-edukietan izendatzeak emakumezkoen existentzia era sinbolikoan azpimarratzea eta ikasketetan garrantzia ematea esan nahi ditu.
- ✎ Hizkuntzaren bidez errealitate berriak imajina eta gauzak egiteko edo mundua interpretatzeko beste moduak antzeman ditzakegu. Adibidez, zenbait lanbidetarako femeninoa ere erabiltzen hasi ginenean tradizionalki sexu bati edo beste bati zegozkion lanbide askori posibilitate berriak irekitzen zitzaizkion, bide berriei ateak irekiz.
- ✎ Gizona edo emakumea izateko era berriak ulertzen, izendatzen eta imajinatzen laguntzen digu lengoaiak.
- ✎ Sexu biak aipatzeak gizon-emakumeok egin, sortu, sentitu, erakarri eta esperimentatzen dugunari buruz hitz egitea dakar.

Hizkuntzaren ekarpena ageri egin, bere parte-hartzea eta berdintasunean elkarrekin bizitzea sustatu eta indarkeria eta estereotipoak ekidin nahi ba ditugu, gizonak eta emakumeak agertarazten dituen hizkuntza erabili behar da, hizkuntza hori dute egoitza gizon-emakumeek.



*Emakume eta gizonen esperientziatik hizkuntzan biziz bide bakarra da denon artean eraiki nahi dugun mundua proiektatu ahal izateko.*

## 4. Eduki kurrikularrak eta baliabide didaktikoak berrikusi eta aldatzea

Eskola-edukiak, baliabide didaktikoak eta interneten bitartez mundua eta gizartearen kontzepzio zehatz bat irakasten dugu. Gizarte eta garai ezberdinek gizon eta emakumeen esentzia eta euren zereginari buruz pentsatu dutenari dagozkion kontzeptuak, sinesmenak, baloreak eta jarrerak barne hartzen ditu errealitatearen irudi horrek.

Kontzepzio hauek ez dira berberak leku eta epoka diferenteetan, historikoak baitira eta, horrenbestez, aldagarriak dira. Dena den, badago kasu gehienetan elementu amankomun bat, eskola-edukien ikuspegi androzentrikoa alegia. Perspektiba honen arabera emakumeen esperientzia, lana eta kultura eta jakintzarekiko ekarpenek ez dute merezimendu nahikorik izan batu, kontserbatu eta transmitituta izateko.

Horregatik, eskola-edukiak hautatu eta garatu behar dira, gizon-emakumeek giza-jakintzari ekarri dizkioten ezagupenak eta esperientzia eduki horien barne hartuz. Era berean, bai emakumezkoekin bai gizonzkoekin zerikusia duten irudikapen eta edukiak kontuan hartzen dituen irizpidez aukeratu behar dira baliabide didaktikoak. Nola estereotipoen erreproduzioa hala emakumeen eta euren lan, ekintza eta ekarpenen azpibalarazioa ekidin daitezke horrela.

Eskola-edukiak hautatu eta garatu behar dira, gizon-emakumeek giza-jakintzari ekarri dizkioten ezagupenak eta esperientzia eduki horien barne hartuz ””



Jarraian berdintasunaren ikuspuntutik edukiak garatzeko zenbait ideia eskaintzen dizkizugu:

- 📌 Zure ikasleei gomendatu nahi dizkiezun testu liburuak birpasatu, irudi, mintzaira edota eduki sexistarik ez edukitzeko.
- 📌 Emakumeak eta gizonak ezagutzeko baliogarriak diren liburuak baino ez itzazu aukera. Ez eman ezagupenen irudi androzentrikorik, ikasgelara eraman duzun edozein edukirako genero perspektiba azpimarratuz.
- 📌 Edukien artean historian zehar berdintasuna trabatu dituzten oztopo guztien azterketa kritikoa ere sartu: generoko aurreiritzi eta estereotipoak, berdintasunezkoak ez diren ideologiak, eta abar.
- 📌 Emakumeen historiari buruzko liburu, biografia eta ikerketa-eskuliburuak barne hartzen dituen ikasgela-liburutegia sor ezazu.
- 📌 Ikasleek beraiek jakintza egiten duten metodologia aktibo eta partizipatiboa erabili, lan- eta ikerketa- taldearen bitartez. Horrela ikasleak



gida ditzakezu bai emakumeen bai gizonen errealitatea, ekarpenak eta esperientziak kontuan hartzen dituen ikuspegi inklusiboarekin ikasten irakasteko.

- ✎ Unibertsitateetako ikerketa-mintegi eta liburutegi espezializatuetara jo ezazu. Genero-ikuspuntutik egindako emakumezko genealogia interesgarriak eta emakumeen historia eta ikerketak aurki ditzakezu han.
- ✎ Internet erabili edukiak garatzeko baliabide gisa. Emakumeen historia eta jakintzarako ekarpena zabaltzen ari diren web orri eta blog ugari aurkituko dituzu sarean.
- ✎ Hiritartasunerako heziketa eta beste ikasgai batzuen edukien artean feminismoaren historia sar ezazu.
- ✎ Eguneroko jakinduria, hau da, benetako bizitzan gertatzen denarekin eta nola emakumeek hala gizonek egin dezatelako beharrarekin lotutako ezagupenak ere sar itzazu ikasgaietan.
- ✎ Zure ikasleen eguneroko jakintza eta euren familia giroarena birbatoratu, amonen eta amen bitartez transmititutako ezagupenak estimatzeko.



## 5. Harremanean heztea

Irakasleok ondo dakigu gure ikasleekin ezartzen ditugun erlazioak konfiantzan eta laguntzan oinarrituta daudela. Ikasten ikasteko, besteekin bizitzeko, inguruarekin konpromisoa hartzeko eta nortasunaren garapen seguru eta orekatua lortzeko funtsezkoak izango dira harreman horiek.

Gure autoritatea aitortuta izan dadila behar dugu hezitzaileek. Horrela ikasten irakatsi ahal izango diegu ikasleei. Halaber ikasleek jakin behar dute pertsona berezi eta bakartzat, hau da, adierazteko era eta izaera propioa duten pertsonatzat hartzen ditugula. Concepción Jaramillok esaten duenez: “Irakasteko autoritatea honetan funtsatzen da: nik haienztzat ekarpenaren bat dudala, haiekin zerbait trukatzeko prest nagoela eta, gainera, haiek daukatena eta ez daukatena antzemateko, haiei hitza emateko eta jasotzeko interesatuta egoteko gaitasuna daukadala haiek nigan aurkitzean”.

Hala ere, estereotipoen pisuak guk haiek gehienetan era desbideratuan tratatzera eramaten gaitu. Esate baterako, arrazoigarria den baino gehiagotan, neskak ez baztertzeko asmoz, guzti-guztiok berdin-berdinak bailiran egiten dugu. Edota, aldrebes, sexuarekin erlazionatutako desberdintasunak onartzen ditugu era estereotipatuan, nesken jarrera

“Irakasteko autoritatea honetan funtsatzen da: nik haienztzat ekarpenaren bat dudala, haiekin zerbait trukatzeko prest nagoela eta, gainera, haiek daukatena eta ez daukatena antzemateko, haiei hitza emateko eta jasotzeko interesatuta egoteko gaitasuna daukadala haiek nigan aurkitzean”



mutikoenarekin konparatuz eta alderantziz.

Heziketa harremana benetakoa izan dadila, ikasle bakoitzaren onarpen bakarretik ezar dadila, eta ikasleek era librean adieraz dezatela, hona hemen proposamen eta hausnarketa batzuk:

- ✎ Ikasleak benetan nolakoak diren behatu behar duzu, euren portaerari buruz alde aurretik dituzun ideia estereotipatuetatik aldentzen saiatuz.
- ✎ Ez egin nesken eta mutikoen arteko konparaketarik.
- ✎ Neskei entzuten diezunean haien errealitateri erreparatu, mutikoen arabera edo haiekin konparatuz ikusteari utziz.
- ✎ Adierazteko, iritziak trukatzeko, okertzeko, egoerak interpretatzeko edo gatazkak konpontzeko konfiantzazko giroa sortu.

- ✎ Ikasle bakoitzaren sentimenduak, gogarteak eta nahiak entzun itzazu, euren sentimendu, hausnarketa eta aurrerapenak benetan kontuan hartuz.
- ✎ Ikasle bakoitzarekiko harremana berezia izan dadila, norberaren izaera eta berezitasunetan interes handia edukiz.
- ✎ Ikasle bakoitzak bere buruari galderak egiteko, bere barnean duen onena ateratzeko, bere prestakuntza eta ezagupenak hobetzeko, bere gaitasunaz fidatzeko eta gaitasun horiek garatzeko era onena bilatzeko gaitasuna daukala sinets ezazu.
- ✎ Parte-hartzea eta lan-taldea faboratzen dituzten metodologiak ezar itzazu, elkar entzuten ikasten, elkarri laguntzen, errespetuz eta besteak onartuz elkarrengandik ikasten ikasi ahal izateko.

*Genero-estereotipoak ez dira desagertuko ikasleekiko harremana elkarrenganako entzute eta errespetuz egiten ez bada.*



## 6. Eskola-, bizi- eta lanbide-orientabidea

Eskolatzearen lehenengo urteetatik bai neskatoak bai mutikoak nagusitan nola izango diren, zein lanbide izango duten eta norekin eta nola bizi izango diren imajinatzen hasten dira. Izan ere, lehenengo kurtsoetatik laguntza-lana egin dezakegu, nahi sakonak adierazten, gaitasunak ezagutzen, trebetasunak garatzen eta haietan entrenatzen eta etapa desberdinetan duten aukerak aske eta estereotipo sexistarik gabe interpretatzen laguntzeko.

Horren ondorioz, hezkuntza prozesu osoan zehar egiten den etengabeko prozesua da orientabidea eta bere helburua ikasleen gaitasunak prestakuntza-, lanbide- eta bizi- aukera desberdinei dagokienez era osoan garatzea da.

Neskek egoera askotan lanbide-bizitzaren eta erlazio eta afektuen bizitza pribatuarekiko bateragarritasunaren ikuspuntutik definitzen dute euren bizi-proiektua. Mutilek, aitzitik, lanbide-arloari baino ez



diote garrantzirik ematen, erlazio eta zaintzarekin zerikusia duten aukerak ahaztuz. Neska-mutilen gainean euren aukera aske, arduratsu eta osoak mugatzen dituzten estereotipoak existitzen dira. Bizitzaren dimentsio guztiei erantzuteko pentsamendu-, emozio-, zaintza-, harreman- eta afektu- ahalmenak garatu behar dituztela argi edukitzea oso inportantea da. Nola lagundu ahal diegu askatasunez eta onarpenez benetan nahi dutena eta euren gaitasunei egokitzen zaiena aukeratzeko? Nola irakatsiko diegu baloratzen bizitzaren aukera ezberdinak? Hauexek dira proposatzen dizkizugun gomendio eta ideia batzuk...

- ✎ Lehenengo kurtsoetatik, euren aukera guztiak aztertzerako anima itzazu, egoera laboral, pertsonal eta sozial desberdinetan zer egingo zuten imajinatuz, baloratuz eta proiektatuz.
- ✎ Bizitza pribatu eta publikoak ezartzen dituen sozializazio-eredu estereotipatuak indargabetezko tradizionalak ez diren lanbideetan edota eguneroko bizitzan emakume eta gizonek eduki dituzten esperientziak erakutsi eta ezagutzen lagundu.
- ✎ Ikasle bakoitzaren garapen orijinala sustatu, zer nolako kontuetan gogo handiz interesatuta dauden kontuan hartuz.
- ✎ Kontuz ibili bereziki bai neskek bai mutilek era guztietako lanak egiteko, sexu baterako edo beste baterako “naturaltzat” hartuta dauden jardueretan gelditu gabe.

**Bizitzaren dimentsio guztiei erantzuteko pentsamendu-, emozio-, zaintza-, harreman- eta afektu- ahalmenak garatu behar dituztela argi edukitzea oso inportantea da”**



- ✎ Pertsona bakoitzaren bizi-proiekturako eguneroko bizitzak nolako garrantzia duen azpimarra ezazu. Eguneroko bizitzak behar dituen lanak bizitzarako eta elarrekin bizitzeko beharrezkoak direla ikasleei irakastea oso garrantzitsua da. Hori dela eta, bai gizonek bai emakumeek egin behar dituzte lan horiek, erantzukidetzuz, behar propioez arduratzen ikasiz eta hurbil bizi direnenak kontuan hartuz.
- ✎ Denbora eta bere inbertsioa eta erabilera bizitzaren dimentsio ezberdinetarako baloratzen irakatsi: besteei arreta, autozaintza, atsedena, eskolako lanak, esperimentatzen duten guztian pentsatzeko denbora... eta besteen denbora errespetatzen ere irakatsi behar zaie ikasleei.

*Orientazio zerbitzuek berdintasunerako ekarpen inportanteak egin ditzakete, lanbide-aukera desberdinen artean era arduratsu eta librez aukeratzen, nahi duten bizi-eredua proiektatzen eta, halaber, erantzukidetasunak bizitza pribatuan, norberaren zaintzan eta elkartearakiko konpromiso aktiboan duen garrantziaz jabetzen lagunduz.*



## *7. Ikastetxea bake gune eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko gunearen moduan esperimentatzea*

Errespetuzko jarrera baketsuz erlazionatzen ikasteko inguru pribilegiatuak dira ikastetxeak, gatazkak modu baketsuz eta aberasgarri konponduz.

Garrantzikoa da gogoratzea emakumeekiko indarkeria jokabide askoren bidez erakusten dela eta irainak edo kolpeak bezalako begi-bistako erasoak baino askoz gehiago dela. Beraz, emakumeek, soilik emakumeak izateagatik, egunerokotzat eta normalizatutzat hartuta dauden trataerak pairatu behar dituzte baina sakonean egoera horiek baztertzaila eta diskriminatzaileak dira. Egoera horietako asko tradizio, usadio edo umeen joko edo kontutzat hartuta izateagatik toleratzen dira. Egoera horiek ekiditeko nesken edo emakumeen aurka hala edo nola jotzen duten jokabideak azalera eta izendatzea funtsezkoa da.

Hezkuntza elkarteak gatazkak era baketsu eta ez sexistan konpontzen hezi nahi badu, indarkeri matxista aurreikusten irakatsiz, biolentziarik



**Biolentziarik gabeko  
gunea eraikitzeke eta  
bakerako hezteko  
konpromisoa hartu  
behar du hezkuntza  
elkartek ”**

gabeko gunea eraikitzeke eta bakerako hezteko konpromisoa hartu behar du. Jarraian zehazten dira horretarako har daitezkeen neurri batzuk:

- ✎ Hezkuntza elkartean emakumeen kontrako indarkeriazko egoerak azaleratu eta izendatzea. Horretarako garrantzizkoa da ikasleek eta hezkuntza elkarte osoak indarkeriazko eta eraso matxistazko egoerak zeintzuk diren seinalatu eta definitzea; horrela ekidin, salatu eta tratatu ahal izango dira.
- ✎ Elkarbizitzako arazoan trataerarako prebentzio, detekzio eta interbentzioko proposamenak ikastetxearen Elkarbizitzarako Osoko Planean sartzea, bereziki indarkeria sexistari dagokionez (psikologikoa, ahozkoa eta fisikoa).
- ✎ Oinarritzkoa da zentroak indarkeria sexista gertatzen denean jarduketaprograma edukitzea: pintaketak, irainak, diskriminazioak, homofobia, eta abar, jeneralizatu gabe kasuz kasu jokatu behar bada ere.
- ✎ Bai bizitza pribatuko arloetan, bai telebista, zinea, publizitatea, bideojokoak, internet, komikiak eta aisiaren beste moduen bitartez ikasleengan eragiteko mezu sexistak zalantzan jartzea.

- ✎ Emakumeei esleitzen zaizkien balore positiboak, zaintzak, enpatia, lankidetasuna, afektibitatea eta esparru pribatua besteak beste, eta gizonezkoen baloretzat hartuta daudenak, adibidez baiezkoatasuna, espazio publikoa eta autonomia curriculumean sartzea, ikasleak aukeren mundu batera irekiz eta tradizionalki sexu bati edo beste bati zegozkion kompetentziak bereganatuz.
- ✎ Konfliktuak era positiboan konpontzen irakastea, pertsonen eguneroko bizitzaren barruan dauden gatazkak modu ez bortitzean konpontzea jakintzaren eta aurrerapen pertsonalaren iturri izan daitekeela ulertuz.
- ✎ “Desberdintasuna” eta “desoreka”-ren artean desberdintzen jakitea, horien artean nahasteak menperatze/sumisioaren egoerak, gatazkak eta enfrontamenduak sortzen dituelako.

*Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea ahozko edo gorputz-biolentziazko keinu eta jarrera sexistak saihestea baino askoz gehiago da. Sentimenduak baloratu, entzuten jakin eta era zuzenean xantaiarik gabe adieraztea hartzen ditu barne, gatazkak pertsonalki eta kolektiboki hazteko aukeratzat onartuz.*



# Berdintasunean Hezten

## *Emakumearen Institutua eta Berdintasun Ministerioaren laguntzaz FETE-UGTk egindako programa*

### *Zergatik egin kanpaina bat berdintasunean hezteko?*

Dudarik gabe, berdintasunean erlazionatzen ikasteko leku pribilegiatutako bat ikastetxeak dira. Elkar hobeto ezagutu, besteen aitortpenean oinarritutako harremanak eduki edo konplizitatetik komunikatu eta emakume edo gizon gisa ditugun eskubideak ezagutzera eramaten gaituzten esperientzia berriak konpartitzen ditugu ordu batzuek egunero. Giden, tailerren eta web orriaren bitartez ([www.educandoenigualdad.com](http://www.educandoenigualdad.com)), bizitza berdintasunean konpartitzeak zer esan nahi duen hausnartu eta ikertzen lagundu nahi dizuegu kanpaina honetan.

### *Non gehi ditzaket gidaren edukiak?*

[www.educandoenigualdad.com](http://www.educandoenigualdad.com) web orrian gai bakoitzari buruzko bibliografia komentatua aurkituko duzu. Gainera beste atal interesgarri asko ere aurkituko dituzu: gelan berdintasuna lantzeko gida didaktikoak, bideoak, hezkidetzaz-hiztegiak, hizkuntza ez sexistaren gida bat eta on-line baliabideak.

### *Zertan datza 'Berdintasunean Hezten' kanpaina?*

Hizkuntza ofizial guztiez egindako bost gida argitaratu ditugu kanpainarako. Gida hauek dohain banatuko dira. Horretaz gain, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutako prestakuntza-tailerak ere egingo ditugu ikastetxeetan. Irakasleentzat hezkidetzako ikastaroak egingo ditugu. [www.educandoenigualdad.com](http://www.educandoenigualdad.com) web orriaren bitartez jarrai dezakezue kanpaina.

### *Eta zalantzak argitu edo informazioa eskatu behar badut?*

Berdintasuna eta hezkidetzari buruzko aholkularitza bat duzue zuen eskura [www.educandoenigualdad.com](http://www.educandoenigualdad.com) web orrian zuen galdera eta eskakizun guztiei erantzuteko. Kanpainaren baliabideei buruzko galderak helbide elektroniko honi bidal diezazkieke: [info@educandoenigualdad.com](mailto:info@educandoenigualdad.com)